



Hitzaurrea



ustrai sendoak garatzen ari da gure Behinola hau, eta horren erakusgarri honako zenbakia.

Lehenengo eta behin *Hitz eta Pitz* sailean, JOXAN ORMAZABALEKIN izandako solasaldia ekarri dugu. Elkarrizketan Joxan euskal HGLren iraganaz, orainaz eta etorkizunaz mintzatuko zaigu, baita idazleekin izandako harremanez bera editorea zenean edo egileekin itzultzaile lanak egiterakoan ere. Solasaldian beste hamaika gairen inguruan Joxanek izan dituen esperientziak eta iritziak jasoko dira.

Bigarrenik, *Hizpide* atalean, XABIER ETXANIZEK eta MANU LOPEZEK egindako artikulua dugu: «Euskal haur poesia milurte berrian». Bertan, XXI. mende honetan argitaratutako haur-poesia liburuen inguruko azterketa sakona egingo dute bi egileek.

Horrekin batera, JUAN KRUZ IGERABIDEK egindako artikulua: «Haur-poesiaren aitzindariak» irakurtzeko aukera izango dugu. Juan Kruzek artikulua zoragarri horretan garai bateko hainbat euskal poeta ekarri ditu gogora: Lizardi, Orixe, Nemesio Etxaniz, Oxobi, Minaberri...

Ondoren, Xabierrek eta Manuk jorratutako artikulua haritik, XXI. mendean poesia argitaratu duten hainbat euskal idazleren poesia-bilduma ederra bildu dugu. Hori guztia *Hitzontzin* aurkituko duzue.

Hitzordu sailean, ITZIAR ZUBIZARREK «Irakurketa mintegia» esperientziaren nondik norakoa azalduko digu: zein helburu, eduki, metodologia... duen programa horrek; eta, aldi berean, zertarako izan daitekeen baliagarria komentatuko du.

Hitz besten, erreseina taldeak hainbat liburuen ganean egindako iruzkin interesgarriak aurkituko ditugu. Aipatu behar da talde horretan bi erreseinagile berri sartu direla: MIKEL AYERBE eta IBAN ZALDUA; ongi etorri, bioi!

Azkenik, JOSU JIMENEZ MAIAK *Hitzatze* atalean «Hirobaka Sinozaki, lanbidez *kamishibaya*» artikulua burutu du. Bertan, Kamishibaiaren artearen inguruan hamaika sekretu eta kontu bitxi argituko dizkigu.

Gure esker beroenak ENRIQUE MORENTE ilustratzaile finari, haren ilustrazioek edertuko baitute 20. zenbaki hau.

Bukatzeko, gure zorionak berriki Euskadi Saria irabazi duten bi lagunei: ELENA ODRIOZOLA eta RUBEN RUIZ. Elenak ilustrazio Euskadi Saria eskuratu zuen, *Aplastamiento de las gotas* (Laberinto de las artes ediciones, 2008). Rubenek Haur eta Gazte Literatura Euskadi Saria irabazi zuen, *Anekdotak* (Pamiela, 2008).